

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak osatzeko lehen hurbilketa egin du

*Gaur egindako bileran Foru Erkidegoaren egoera ekonomikoa ere aztertu da*

Lunes, 12 de septiembre de 2011

Ekonomia eta Gizarte Kontseilua (CES) Nafarroako Jauregian bildu da gaur goizean, alde batetik, Foru Erkidegoaren egungo egoera ekonomikoa aztertzeko xedez, eta bestetik, 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak osatzeko lehen hurbilketa bati hasiera emateko.

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla buru dela, erakunde horrek honako gai hauek zituen gai-zerrenda jorratu du: Nafarroaren ekonomiaren egoerari buruzko txostenaren azterketa eta 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak osatzeko lehen hurbilketa.

Ildo horretatik, Miranda lehendakariordeak Kontseiluko kideei eskatu die, eman zaien informazioaren arabera, proposamenak helaraz ditzatela datozen asteotan hurrengo Nafarroako Aurrekontu Orokorrak osatze aldera, aztertu ahal ditzaten.

Miranda lehendakariordearekin batera, bilkurako lehendakaritzako mahaian izan dira: Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoechea Zubelzu eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen zuzendari nagusi Juan Franco Pueyo.

CES organikoki Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren mende dagoen organo aholku-emailea da. Organo horren lehen zeregina, departamentu horretako kontseilaria buru dela, foru-legearen aurreproiektuen inguruan txostenak eta irizpenak egitea da, gai sozio-ekonomikoak



Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bilera.



arautzen dituen, eta bereziki Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektua; eta baita txosten eta irizpenak egitea ere, arlo ekonomikoko, fiskaleko, lan eta nekazaritza arloko, enpleguko eta gizarte-ongizateko beste edozein gairi buruz, Nafarroako Gobernuak edo Parlamentuak eskatuta edo norberaren ekimenaz.

Miranda lehendakariordea CESeko bileraren buru, Goicoechea kontseilaria eta Juan Franco alboan dituela.

CES honako ordezkari hauek osatzen dute: Foru Erkidegoko Administrazioak; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak; UGT, Comisiones Obreras, ELA eta LAB sindikatuak; Nafarroako Enpresari Elkarteak (CEN); Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Elkarteak; Irache Kontsumitzaile Elkarteak; Nafarroako Nekazaritza eta Abeltzainen Elkarteak; Nafarroako EHNE nekazaritza-sindikatuak; Lan Enpresen Nafarroako Elkarteak; Gurelur erakunde ekologikak; Nafarroako Unibertsitate Publikoak; "Santa Maria La Real" Nafarroako Etxekoandre, Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Erakundeak.